

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa, GOTOWN izenekoa, herrietako jatetxe, tabernetako janaria eta botikak etxez etxe banatzeaz arduratzen da. Hasiera batean Oihan eta Urko arduratuko dira janariaren banaketaz eta ondoren, banatzaile gehiago kontratatzen hasiko gara.

Lehen esan dugun bezala, etxez etxeko banaketak egiten dituen enpresa gara. Hasiera batean, Ordizia, Beasain, Lazkao, Itsasondo eta Legorretan egingo dira banaketak. Elkar lana egingo ditugun tabernak hauek dira: Olano, Kantoj, 1990, Pottoka, Bide luze...

Aplikazio bat sortuko dugu, non bezeroek zer erosi nahi duten aukeratu ahal izango duten. Aplikazio hau sortzeko ezagutzak dituen pertsona bat kontratatuko dugu.

Bezeroek zerbait eskatzen dutenean, aplikazioak automatikoki jakinaraziko die tabernakoei langileak bezeroek eskatutakoa prestatuko dute, gero, Oihan eta Urkok eskaera jaso eta banatuko dute.

Aplikazioarekin edo beste edozein gauzarekin arazoren bat izanez gero, bezeroari arreta emateko non gure telefono zenbakira deitu beharko dute eta Maria arduratuko da bezeroei ahal duen guztian laguntzeaz.

Aplikazioa sortu ondoren, Mainerrek programatu egingo du eta ziurtatuko du dena egoera onean dagoela. Enpresa administratzea Eyerus arduratuko da.

Azkenik, Urko GoTown-en marketinaz arduratuko da.